BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

856

AGINDUA, 2011ko abenduaren 9koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Fundación Urbegi» fundazioaren estatutuetako 29. artikuluaren aldaketa onartu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko egindako eskabidearen espedientea ikusi eta aztertu da. Hona hemen:

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazio Sailean sartu zen, 2011ko urriaren 26an, «Fundación Urbegi» fundazioaren estatutuen 29. artikuluaren aldaketa Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskabidea. Eskabide-idazkiarekin batera, Balmasedako Carlos Alberto Muley Posso notarioaren aurrean egiletsitako eskrituraren kopia baimendua aurkeztu zen, 2011ko uztailaren 29an (protokolo-zenbakia: 1201).

Bigarrena.– 2011ko azaroaren 7ko idazkiaren bidez, Fundazioen Erregistroak fundazioari eskatu zion aurkitutako akatsak zuzentzeko; 2011ko azaroaren 25ean sartu zen, Justizia eta Herri Administrazio Sailean, aipatutako notarioak 2011ko azaroaren 15ean emandako lekukotza –2011ko azaroaren 11n egindako notario-eginbideari buruzkoa–, lehenago adierazitako estatutu-aldaketari buruzko eskrituraren osagarri.

Hirugarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Zerbitzu Teknikoek aztertu dute espedientea, eta, ondoren, ebazpen-proposamena egin dute. Hona hemen horretarako kontuan hartu dituzten

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak eman behar du, agindu bidez, estatutuak aldatzeko espediente honi buruzko ebazpena, honako lege-xedapen hauetan hala ezarrita baitago: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3.1 artikuluan; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzari buruzko Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan; Lehendakariak 2009ko maiatzaren 8an Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko eman zuen 4/2009 Dekretuaren 9.1.e) artikuluan; eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeari buruzko abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuaren 4.1 artikuluan.

Bigarrena.– Espediente honi funtsezko iritzitako datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 31. artikuluan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 44. artikuluan eskatutakoak; aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin bat dator aldaketa.

Aipatu manuak eta aplikatu beharrekoak diren gainerako arauak ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balmasedako (Bizkaia) «Fundación Urbegi» fundazioaren estatutuetako 29. artikuluan egindako aldaketa onartzea.

Bigarrena.– Fundazioaren estatutu-aldaketa hori inskribatu dadila agintzea, agindu honen egunarekin berarekin, Balmasedako notario Carlos Alberto Muley Posso notarioaren aurrean 2011ko uztailaren 29an egiletsitako eskritura publikoan ezarritakoari jarraituz (protokolo-zenbakia: 1200); eskritura hori 2011ko azaroaren 11ko eginbidearen bidez osatu zen, 2011ko azaroaren 15eko lekukotzaren arabera -aipatutako notarioak baimendutakoak dira, bai eginbidea, bai lekukotza.

Hirugarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei bidaltzea.

Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio; beraz, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko abenduaren 9a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.